



Zer dira zuhaitza
eta basoa?



Baso-paisaia eta munduko baso-dibertsitatea

I- Basoa paisaian

Paisaia lur-eremu bat da, dela naturala dela gizakiek eraldatua, bere ezaugarri bisual edo funtzionalengatik bereizi dezakeguna. Gizakientzat, basoa baliabide natural bat da, zenbait behar asetzea ahalbidetzen diona: elikatzea, berotzea edo dibertitzea. Horrenbestez, nekazaritza-eremuak bezala, basoa espazio antropizatu bat izan da beti.


Denboran zehar, **lurzoruaren erabilerek eboluzionatu dute eta paisaia aldatu dute**, poliki-poliki. European, nekazariak hirietara egin duten exodoak **nekazaritza-lurrak abandonatzera** eramandu landa-eremuetan, eta abandonatutako lur-eremu horiek **zuhaitz-eremu** izatera pasatu dira, gero eta neurri handiagoan, eta gero **baso** bihurtu dira. Baso-paisaiara daraman **trantsizio hori** lurrean dauden **hazi sorrei** esker gerta daiteke, edo **haizeak edo animaliek ekarritako** hazi berriei esker.

II- Basoak lurraldean jokatzeko duen rola.

Gizakiek egiten duen baso-kudeaketa oso garrantzitsua da, **izaki bizidun asko dituen** ekosistema bat delako eta **ezinbestekoak diren baliabideak** eskaintzen dizkigulako.



Basoberen kudeaketa motzondoetako kimuen bitartez egiten da: moztu eta gero, zuhaitza berriz ere hazten da zurtoin batzuketaz. Kudeaketa mota hori asko erabiltzen zen iraganean, berotzeko egurraren ekoizpenerako. Bere desabantaila da diametro txikiko zuraren ekoizpena eramaten duela, eta horrelako zura ezin erabil daitekeela -adibidez- etxeak eraikitzeko.



Zuhaitzak antzeko moduan moztzen badira, baina kimu gazteak babestuz, eta orduan zuhaitz handiagoak eta zabalagoak lor daitezke. Erabakitzen bada basobera zuhaitz altuago horien azpitik mantentzea, orduan bi baliabide lortzen dira lurzati berean (berotzeko egurra eta eraikuntzarako zura); baso-teknika hori basoberarena da.



Zer dira zuhaitza eta basoa?


Baso-paisaia eta munduko baso-dibertsitatea



Denborak aurrera egin ahala, gizakien teknologiak eboluzionatu egin du energiaren sektorean (ikatz, petrolio, elektrizitatea) eta industrian (zerrategiak). Gizartearen eskaria ere aldatu egin da, eta diametro handiagoko zuraren beharra haziz joan da, oholtzarren ekoizpenerako; horren eraginez, baso-kudeaketa baso erregular edo adinkideetara zuzendu da.

III- Munduko eta Europako basoen dibertsitatea

Mundua orokorrean kontsideratzen badugu, **basoen dibertsitatea klimaren mende dago neurri handi batean. Hiru kategoría nagusitan sailkatu ditzakegu:**



Baso tropikalak eskualde bero eta hezeetan (normalean eremu ekuatorialak, Brasil edo Indonesia).



Baso borealak edo taigakoak eskualde hotz eta lehorretan (normalean eremu nordikoak, Errusia edo Kanada). Planetako baso mota ugariena, lur-azaleraren % 10 baino gehiago estaltzen baitu.



Baso epelak, klima leuneko eskualdeetan (normalean Europan eta Txinan).

Basoen barruan, bi zuhaitz mota nagusi bereizi ditzakegu: koniferoak eta hostoerorkorrak. Hostoerorkorrek urtero udazkenean erortzen diren hostoak dituzte (adibidez: pagoa, haritza edo urkia), eta **hosto erorkorreko zuhaitz bezala** deskribatzen dira. **Koniferoek**, aldiz, **udazkenean jausten ez diren orratzak dituzte** –gehienek- (adibidez: izei zuria, itsas pinua edo izei pektinatua), eta horregatik esaten da **hosto iraunkorrekoak direla**.

Koniferoek euren fruituetatik hartzen dute izena: konoak, nahiz eta pinuen kasuan «pinaburuak» deitzen zaien batzuetan. Euren ugalketarako ezinbestekoak diren **haziak daukate barruan**. Koniferoei “erretxinadunak” ere deitzen zaie, horietako gehienek **erretxina jariatzen dutelako zuhaitza babesteko, berau zauritzen denean**.



Zer dira zuhaitza eta basoa?

Baso-paisaia eta munduko baso-dibertsitatea

Zuhaitzen espezieen **dibertsitatea handiagoa izaten da baso hostoerorkorretan** koniferoen basoetan baino. Horren arrazoi nagusia gizakiek baso ez egiten duten kudeaketa da; izan ere, **koniferoen baso asko landaketagatik** eta eraikuntza monoespezifikogatik sortzen dira. **Baso hostoerorkorrek**, berriz, sarriagotan berritzen dira **lehengoratzte naturalaren bidez**.

Frantzian, baso-espezie arruntenak honako hauek dira: **haritza (kandugabea, kanduduna, ilaunduna), pagoa, itsas pinua, pinu gorria, izei zuria eta izei gorria**.



Pagoa



Itsas pinua



Izei zuria



Haritz kanduduna



Alepo pinua



Mendi-pinua

Espanian, berriz, zuhaitzen espezie nagusiak honako hauek dira: **artea, pinu gorria, Alepo pinua, haritza kanduduna eta kandugabea, mendi-pinua eta itsas pinua**.




Zer dira zuhaitza eta basoa?

Baso-paisaia eta munduko baso-dibertsitatea



ZUR BIGUNAK DETERMINATZEKO GAKO ERRAZTUA



© www.onf.fr - Marrazkiak: Jean-Michel Douche/ONF - Informazio gehiagorako, bita ezazu www.onf.fr eta bilazaillean +86c jarri

